



Prensa agiria

Administrazio Auzitegiak atzera bota du Ziburuk galdegin zigor handitzea.

Epaileak dio, Seaskak egiazko borondatea behin eta berriz agertu duela Eskola publiko ondoko lurra uzteko eta beraz ez daitekeela zigorra 100 €tik 400€ra pasa.

Paueko Administrazio Auzitegiak atzera bota du Ziburuko udalak, ikastolaren kontra galdegin zigor handitzea. Guy Poulou auzapezak eta Isabelle Dubarbier auzapezordeak eguneko 100 €ko isuna 400 €ra pasatzea galdegin zioten auzitegiari, ikastolak Marinela auzoan dagoen lurra utzi bitartean. Baina epaileak Seaskak tokiak uzteko egin ahaleginak azpimarratu ditu eta udaletxearen eskaera onartzeko arrazoinik ez dagoela dio.

Horretaz gain, Ziburuko gehiengoan diren hautetsiek uxerraren gastuak eta kostuak Seaskaren gain ezartzea galdegin zuten baina epaileak ez du halakorik onartu. Gisa berean, 100 €ko isunaz gain, egun bakoitzeko isunaren gaineko interesak ordainarazi nahi zituen auzapezaren taldeak, baina epaileak ere ez ditu onartu.

Epaileak 100€ko isuna berretsi du hala ere, ikastolak lur publikoan segitzen baitu auzapezaren baimenik gabe. Azaroaren 28an, 7 900 €koa da isuna orotara, horiei jadanik urrian ordaindutako 4 370,30 €ak kendu behar zaizkielarik.

Egoera beraz, irailaren 1ean genuen bera da. Ikastolak 100 € ordaindu beharko du eguneko, baldintza duinetan berkokatzeko beste lekuri atzematen ez duen bitartean.

Seaskak bere borondatea berriz ere agertu nahi du aterabide bat lehenbailehen atzemateko. Gisa horretan berriz ere dei egiten dio udalari elkarlanari ekiteko eta ikastolaren kontrako ekimen oro bertan behera uzteko (elektrizitate mozketak, uxer bidalketa, administrazio zerbitzuei salaketa segurtasun batzordearen bisita bapatekoa lortzeko, auzitegietan salaketak eta abar).

Seaskak bihotzez eskertu nahi ditu azaroaren 8an mobilizatu diren herritar guziak, eta « NIK ERE IKASTOLA BAT NAHI DUT ZIBURUN » kanpainarekin aitzina segitzeko deia egin du, eguneko zigorra ordaintzeko eta ikastola ahal bezain fite beste leku batetara eramateko beharrezkoak diren sosak bildu ahal izateko.

Aretz Igiñiz et Paxkal Ezkurra

Ildo horretatik, kanpaina berri bat abiatu da iragan asteburuan Debagoienan (Gipuzkoa) antolatu herri lasterkaldiekin, non milaka haur bildu diren Ziburuko ikastolaren sustenguz. Hernani eta Ordiziako errugbi taldeek ere beren sustengua adierazi zioten igandean Ziburuiko ikastolari.

Gaur Aretz Igiñiz Aviron Bayonnais taldeko errugbilari ezagunak et Paxkal Ezkurra, buruz buruko berezkoen pilotari txapeldunak agertu dute heien sustenguan, « NIK ERE IKASTOLA BAT NAHI DUT ZIBURUN » afitxa izenpetuz eta 100 €ko egun bateko isuna beren gain hartuz.

Ondoko egunetan, Euskal Herri osoko kirol munduko hainbat jokalarik gisa berean egingen dute Ziburuko ikastolari sustengua adieraziz eta egun bateko isuna berengain harturik.

Kanbo, 2014ko abenduaren 2 a



Communiqué de presse

Le Tribunal administratif déboute la mairie de Ciboure de sa demande d'augmentation d'astreinte.

Le juge estime que eu égard à la volonté réelle et réitérée de Seaska de quitter la parcelle jouxtant l'école publique il n'y a pas lieu d'augmenter l'astreinte de 100 € par jour.

Le tribunal administratif de Pau statuant en référé à la demande de la commune de Ciboure, a débouté la mairie de sa demande d'augmentation d'astreinte journalière. Le maire Guy Poulou et son adjointe Isabelle Dubarbier, souhaitaient que l'astreinte soit portée à 400 € par jour de retard, au lieu des 100 € par jour, jusqu'au jour de départ effectif de l'ikastola de Marinela. Mais le juge a estimé que eu égard à la volonté réelle manifestée par Seaska et réitérée de quitter les lieux, il n'y a pas de raisons d'accepter la requête de la commune.

De plus, les élus de la majorité municipale souhaitaient que les frais et honoraires des actes d'exécution accomplis par l'huissier soient également pris en charge par Seaska. Le juge ne les a pas suivis. De même le maire et son adjointe avaient demandé que les intérêts légaux sur les 100 € d'astreinte soient ajoutés, mais ils ont été déboutés sur ce point également.

Le juge a confirmé l'astreinte de 100 € par jour, estimant qu'au 28 novembre l'addition monte à 7 900 €, montant auquel il faudra déduire les 4370,30 € déjà payés par Seaska au mois d'octobre devant huissier.

La situation reste donc la même qu'au 1^{er} septembre dernier. L'ikastola devra payer 100 € par jour d'occupation de la parcelle tant qu'elle n'aura pas trouvé de solution de relogement, dans des conditions acceptables.

Seaska réitère sa volonté de trouver une solution le plus rapidement possible, et en appelle à la majorité municipale de Ciboure afin de travailler ensemble, en cessant les actes de toute nature à l'encontre de l'ikastola (coupure d'électricité, envoi d'huissier, dénonciation auprès des services administratifs pour un passage impromptu de la commission de sécurité, assignations en référé, etc...).

Seaska remercie toutes les personnes qui se sont mobilisées le 8 novembre et appelle à poursuivre la campagne « NIK ERE IKASTOLA BAT NAHI DUT ZIBURUN » afin de récolter les fonds nécessaires au paiement de l'astreinte, mais également afin de recueillir les fonds nécessaires pour pouvoir relocaliser l'ikastola dans les plus brefs délais.

Aretz Iguñiz et Paxkal Ezkurra

A cet effet, une nouvelle campagne a débuté le week-end dernier, avec une journée de course organisée dans plusieurs villes de Debagoiena (Gipuzkoa) où plusieurs milliers d'enfants ont participé en soutien à Ziburuko ikastola. Les équipes de Rugby du premier rang outre Bidassoa de Hernani et Ordizia ont également porté leur soutien à l'ikastola de Ziburu dimanche. Aujourd'hui ce sont Aretz Iguñiz, joueur de l'Aviron Bayonnais et Paxkal Ezkurra, champion du tête-à-tête de pelote à main nue qui ont manifesté leur soutien, en signant l'affiche « NIK ERE IKASTOLA BAT NAHI DUT ZIBURUN » (Moi aussi je veux une ikastola à Ciboure) et en versant 100 €, afin de prendre à leur charge un jour d'astreinte.

Ces prochains jours, plusieurs personnalités du monde sportif prendront le relais et feront de même en affichant leur soutien et en prenant à leur compte le paiement d'un jour d'astreinte.

Kanbo, le 02 décembre 2014

[Ikastolen Federakuntza / Fédération des Ikastola](#)

Nere Pentzea / Route de la Pouponnière - 64250 KANBO - Cambo / Tél. 05 59 52 49 24 / Fax. 05 59 52 88 87

seaska@ikastola.net . www.seaska.eus